


LABetik

EREINDAKOA JASOTZEKO ORDUA DA

2016 Otsaila
Nazio Biltzarra



UDAZKEN EMANKORRA

Indartsu hasi genuen kurtsoa eta udazken emankorra izan dugu. Kurtsoari begirako helburuak hiru faktore aintzat hartuta finkatu genituen: hauteskunderen epealdi trinkotik indarberrituta atera ginen, Nafarroan kota historikoetan gabiltz eta EAEn bigarren sindikatu izatea esku-eskura dugu; egoera politiko eta sozialaren azterketa egin eta gure burua eta gure ekarpena kokatzeari garrantzia eman genion eta horretan ere badihardugu; hirugarrenik, Kongresuari begira jarri ginen, eredu sindikala berritzeko erabakia hartuz, eta bidea egiten ari gara dagoeneko.

Mugimendu eta lan handiko hilabeteak izan dira, hazia ereiten aritu gara: ekintza sindikala berritu dugu gure bostekoarekin (bost aldarrikapen, bost kolektibo), Alternatiben Herria arrakasta betean burutu dugu, alternatibak gorpuzteko aukeren bueltan, mobilizazio soziala suspertzeko oinarri nahikorik badela bistan utziz; burujabetzaren aldeko diskurtsoan sakondu dugu, presoan eskubideen aldeko borroka gure agendaren erdigunean kokatuz; lurraldez lurralde, ari gara gure bidea marrazten: Nafarroan trantsizioan eragiten ari gara; EAEn Lan Harremanetarako esparru propioaren aldarrian sakotzen eta Ipar Euskal Herrian instituzionalizazio prozesuak negoziatzeko eremu berezia ekar dezan lanean.

Udazken emankorra izan da lan mundua aldatzeko borrokan, prozesu soziala suspertzeko eginahalean eta prozesu independentista hauspotzeko saiakeran, Ezker Abertzalearen birdefinizio estrategikoak bete-betean sartu garelarik.

BENETAKO ALDAKETA, EUSKAL HERRITIK EUSKAL HERRIRAKOA

Azken hilabetei begira, arlo politikoan zurrumbilo batean murgilduta gaude: abenduak 20ko hauteskundeak, Katalunian lortutako akordioa, Nafarroako Gobernu berriaren ibilbideak eta Ezker Abertzaleak martxan jarritako Abian prozesuak zer esan handia eman dute.

Estatu espainiarrari dagokionean, erreforma ekonomikoek erreforma politikoei bide eman die. Zer norabide izango duten ikuskizun dago oraindik, baina argazkia aldatu bada ere, ezin esan dezakegu sakoneko aldaketarik egongo denik.

Estatuko lehia politikoan elementu berriak egon arren, ez dugu aukerarik ikusten benetako aldaketa baterako. Alegia, aldaketa ez da estatu espainiarreko erreforma batetik etorriko. Beste gauza bat da momentu honek zer aukerak eskaintzen dituen.

Hori horrela, LABen iritziz Euskal Herriak herri bezala jarrera bat izan behar du Estatuko trantsizioaren aurrean. Herri akordioen bidez adostutako jarrera beharko luke, herri moduan geure bidea egin ahal izateko, baina momentuz ez dugu aukerarik ikusten, batetik ez dagoelako tamainako inizatibarik eta bestetik PNV ez dagoelako horretarako. Espainiako Gobernu berriaren aurrean Ezker Abertzaleak eskaera eta jarrera argiak izan beharko ditu.

Gobernua alderdi baten edo besteren esku geldituta ere, argi izan behar dugu akordioak lortzea eta aurrera ateratzea indar harremanen arabera izango dela. Madrilgo Gobernutik ukatu egiten zaigu Euskal Herrian eta Euskal Herriarekin konponbide prozesu bat aurrera eramatea. Beraz, eztabaida da Herri honetan eragileon ekimenez eta herriaren protagonismotik gatazkaren konponbidearen lerroa berraktibatzeke mobilizazio eta aktibazio sozialean urrats berriak emango ote ditugun. Gobernuak ez du berez urratsik emango, ez badugu mobilizazioaren bidez behartzen.

Hori Hego Euskal Herriari dagokionez. Ipar Euskal Herrira begira, egoera historikoa emango da martxoan, instituzio propio bat sortuz. Azken hamarkadetako borrokari esker ziklo berri batean kokatzen gara eta instituzio propio baten gainean burujabetzarako bidea egiteko aukera irekitzen dugu.

Datozen urteetan hartuko diren erabaki politikoak erabakigarriak izango dira euskal langileentzat. Erabakigarriak eredu sozioekonomikoari begira. Kezka sozialek gero eta toki handiagoa dute inkestetan eta inkestetatik haratago, gure eguneroko errealitatean. Momentu honetan, beraz, ibilbide independentista egoera soziala aldatzeko borondate eta asmo politikoaren gainean egin behar da. LABen apustua izan da fase politiko honetan langileak protagonista izateko borrokatzea. Hori horrela izan dadin sindikalismoaren parte hartzeaz gogoeta egin behar dugu, herri aktibaziorako formula berriak bilatu behar ditugu.

GAURKO EGOERATIK, ETORKIZUNARI BEGIRA

Ezker Abertzaleari dagokionez, LABetik kurtsoa hasi genuen gogoeta estrategiko baten beharra aldarrikatuz, eta gogoeta hori irekia dugu, ABIAN prozesuan. Proposamen politiko oso bat egingo da, Ezker Abertzaleak aurrera begira bere burua berritu dezan oinarriak jarritz. Oinarri sozialak du orain hitza. LABetik deia egiten diogu gure militantzia osoari eztabaida prozesuan parte hartu eta ekarpenak egin ditzan.

Edonola ere, ezin diogu Abian prozesuari eskatu dena konpon dezan. Sindikalgintzak gaur dituen arazoei aurre egiteko gogoeta prozesu propioa abiatu dugu, eredu sindikalaren inguruan Birpentsatzen ari gara. Hori bai, Abian prozesua ireki izanak Ezker Abertzalea arnasberritzeko baldintzak ekarriko dituela pentsatzen dugu. Era berean, ikusten dugu, eredu sindikalaren gaineko gogoeta abiatzen aitzindaritza hartuz, LABek asmatuko duela gaurko eta biharko Euskal Herriaren behar eta ezaugarrietara egokituko den sindikalgintza eredu eraginkor bati bide ematen.

Aldaketa sozialak eragiteko euskal sindikatuok pisu politiko handiagoa behar dugu. Eta pisu politiko hori berreskuratzeko biderik emankorrena ekintza sindikala indartu eta mobilizazio soziala suspertzea da. Horretan ari gara LABen. Eztabaida politikoan beste paper bat jokatu genezakeen ELA eta LAB sindikatuok behingoz aliantza bat lortuko bagenu eta eztabaidan eragin, alderdi politikoen posizioak baldintzatzeko aukera egongo litzateke. Baina ELAk gure arteko desadostasunen inguruan berriki esan dituen gezurrak kontuan hartuta, ez dirudi jarrera horren atzean aliantzatarako borondaterik dagoenik. Aidanez, handia eta istorikoa izateak ez du sindikatu baten heldutasun politikoa bermatzen. LAB ez da hika-mika antzuetan sartuko, gutxiago gezurren gainean eraikitako eztabaida faltsuetan, baina ez dugu onartuko gure militantziaren lana gutxiesterik. Lantokietan eta lan zentruetatik at, orohar, Euskal Herrian, egiten dugun lana eta jasotzen ari garen emaitzak dira gure bermerik onena. Hori horrela aitortu eta balioztatzen dugu, eta jarraitzen dugu pentsatzen, desadostasunak gainditzeko eztabaidari errotik heltzeko baldintzak sortu egin behar direla. LABen konpromisoa irmoa da zentzu horretan.

DATOZEN HILABETEETARAKO PLANGINTZA

Langileon aktibazioa eta mobilizazioa izango ditugu gure agendaren oinarri. Aldaketak lortu ahal izateko, lehenik eta behin baldintzak sortu behar ditugu, eta lan horretan arituko gara hiru lerro nagusiren inguruan: Estatutik datozen eraso eta murrizketekin konfrontazioan, euskal esparru sozioekonomikoaren aldeko borrokan, lanaren eta aberastasunaren banaketan oinarrituko den eredu berri baten alde. Plangintza norabide batean egin dugu: langileen aktibazioa bilatzen dugu lan munduan prekarietatearen kontra, herri aktibazioa aberastasunaren eta lanaren banaketaren alde, baita egoera aldatzeko eskubidearen eta ahalmenaren defentsan ere.

Ez dira makalak geure buruari jarri dizkiogun lanak. Honela laburbiltzen ditugu:

Ekintza sindikalean, prekarietatearen kontra, lanaren eta aberastasunaren banaketaren aldeko lerro osoa irekia dugu, 1.200 euroko gutxieneko soldata eta 35 orduak oinarri hartuta. Dinamika iraunkorra martxan dugu lantokietan eta hori izango da kurtso bukaera bitarteko gure lanketa nagusia, egunerokoan sortzen diren gatazka eta borrokekin batera.

Arlo sozioekonomikoan, Karta Sozialaren bidean buru-belarri jarraituko du sindikatuak. Bilboko Alternatiben Herria arrakasta itzela izan zen eta ondoren, urtarriean burutu den asanblada nazionalean, datozen bi urteetako agenda finkatze aldera lanean segitu dugu. Mobilizazioaren eta elkarlanaren bideari eutsiko diogu, beraz.

Horrekin batera, babes sozialaren aldeko borroka sindikatuaren agendan kokatzen da, agendan ditugun moduan, fiskalitatea eta aurrekontuak edota finantza eremuan, pribatizazioaren kontrako dinamika. Azkenik, esan, etorkizunari begira, baina gaurdanik, sindikatuak indarrez helduko diola ingurumenaren gaiari. Hor hiru lehentasun markatu ditugu: TTIParen kontrako borroka, proiektu txikitzaileen aurkakoa eta hirugarrenik, burujabetza energetikoa.

Eta, noski, 2017ko Biltzar Nagusia gero eta gertuago dugunez, eredu sindikalaren inguruko gogoetari ere martxa sartzera goaz, azken urteetan eman diren aldaketak aztertuz diagnosi konpartitua egin eta gero, orain, subjektuaren berrosaketaren eta aktibazioaren inguruan.

Hitzordu eta deialdi ugari izango dugu hemendik eta uda bitarte gure aldarrikapenen bueltan elkartu eta aritzeko. Animo eta aurrera!